



INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUNAREN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA  
Y SOSTENIBILIDAD  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

**Ebazpena, 2024ko urriaren 17koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Igorreko (Bizkaia) udal-mugarteko Garakoi auzoa Arratia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.**

#### AURREKARIAK

2024ko ekainaren 28an, Uraren Euskal Agentziak eskaera bat aurkeztu zion ingurumen-organoari, Igorreko (Bizkaia) udal-mugarteko Garakoi auzoa Arratia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuari (aurrerantzean, proiektua) buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutakoa betez.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 77. artikuluan aipatzen den kontsulta-izapidea egin zuen ingurumen-organoak eta horren emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Uraren Euskal Agentziari.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitzat jotzen zituen oharrek egin ahal izateko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dionaren arabera.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da oinarriak ezartzea ingurumenean eragin nabarmena izan dezaketen proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautzeko, eta ingurumena babesteko maila handia bermatzeko, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egingo zaie arau horren II.D eranskinean zerrendatutako proiektuei.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan eta aipatutako abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela formalki egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin dezan, interesdunei eta eragiten dien administrazio publikoei kontsulta egin ondoren.

Azkenik, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean zehaztutako eskakizunak hartu dira kontuan.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal



Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.** – Igorreko (Bizkaia) udal-mugarteko Garakoi auzoa Arratia ibaiaren uholdeetatik babesteko proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauetan:

#### 1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

Uholdeen aurka babesteko proiektuaren jarduketa-esparrua Arratia ibaia da, Igorreko (Bizkaia) udal-mugarteko Garakoi auzoan.

Aurreikusitako jarduketaren helburu nagusia da eremuko uholde-arriskua ekiditea edo murriztea, betiere uholde-arriskua prebenitzea eta ur-masen egoera ona lortzea bateragarri egiteko filosofiari jarraituz.

Igorre uholde-arrisku handiko eremuari (UAHE ES017-BIZ-2-1) dagokion «Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren berrikuspen eta eguneraketa (2022-2027 zikloa)» dokumentuak jasotako neurri bat da Igorreko udal-mugartean Arratia ibaiaren uholdeen aurka babesteko jarduketa.

Zehazki, Garakoi auzoak, uholde-arriskuaren ikuspegitik, 2,33 urteko errepikatze-denborako uraldi-arriskua du, eta hiru puntutatik sartzen da bertara. Lehena ibarbide bateko ur-irteera da, auzoko sarreraren isurtzen dena. Bigarren sarrera-puntua bizitegi baten sarreraren ingurua da. Hirugarrena auzoko drainatze-sarearen irteera da, garai bateko zubitik ibaian gora.

URAK hainbat azterlan eta lan eginak zituen bertan, eta 2024an «Arratia ibaia uholdeen aurka babesteko proiektua, Igorreko Garakoi auzoan» idazteko agindua SALABERRIA - 3BIDE ABEEari ematea erabaki zuen. Hala, lehiaketaren baldintza-agiri teknikoan adierazi denez, jarduketaren helburua da Arratia ibaiak Igorreko Garakoi auzoan eragiten dituen kalteak murriztea ahal bezain errepikatze-denborarik luzeenerako, eta, hala, uholde arruntetarako babesa bermatzea.

Horretarako, aipatutako baldintza-agirian aipatzen denez, egin beharreko jarduketaren artean uholdeetarako bi ibilgu egin beharko dira, bat ezkerrean, Garakoiko meandrotik behera, eta beste bat eskuinaldean, meandroa bera zeharkatuta. Beste jarduketa bat da errepidearen sestra igotzea, aipatutako meandrotik ibaian beherako zatian. Helburuak izan beharko luke jarduketa guztien bidez 50 urteko errepikatze-denborako uholdeak eragozteko, bai Garakoi auzorako, bai Igorreko Agirre lehendakariaren hiribiderako. Premisa horiek abiapuntutzat hartuta, idazketa fasean den proiektuak bi ubide egitea formulatzen du, bata meandroan bertan eta bestea ibaian behera. Ubide horiek ez dira baldintza-agiri teknikoan aurkeztutako hasierako proposameneko berak; alegia, ezkerreko ubidea luzeagoa da, eta eskuinaldeko ubidea zabalagoa, eta bi ubideak ibaitik hurbilago egingo dira. Proiektuaren arabera, egindako kalkulu zehatzek nahiz gutxi gorabeherakoek erakusten dute aldaketa horiekin proiektua hobeagoa dela. Izan ere, ubideen ertzen eta ibaiertzen arteko tartea ez da handiegia, eta, ondorioz, ez da beharrezkoa erriberako landaretzarik kentzea, ez eta ibilguaren funtzionamendu normalari eragitea ere.

Horrela, proposatutako ubideek honako neurri hauek izango lituzkete:

- Ezkerreko ubidea (meandrotik behera):
  - Eskuineko aldearen luzera: goialdean, 138 m; behealdean, 130 m.
  - Ezkerreko aldearen luzera: goialdean, 171 m; behealdean, 178 m.
  - Zabalera erdiko puntuan: 20 m.
  - Eskuineko ezpondaren azalera: 510 m<sup>2</sup>
  - Ezkerreko ezpondaren azalera: 776 m<sup>2</sup>.

- Okupazioa osotara: 4.190 m<sup>2</sup>.
- Eskuinaldeko ubidea (meandroan):
  - Eskuineko aldearen luzera: goialdean, 213 m; behealdean, 218 m.
  - Ezkerreko aldearen luzera: goialdean, 189 m; behealdean, 182 m.
  - Zabalera erdiko puntuan: 20 m.
  - Eskuineko ezpondaren azalera: 1.054 m<sup>2</sup>
  - Ezkerreko ezpondaren azalera: 606 m<sup>2</sup>.
  - Okupazioa osotara: 5.630 m<sup>2</sup>.

Ubideen ertzetako maldak 3H/2V motakoak izango liriteke, eta, horrela, Garakoi auzoko uholde-arriskua 50 urteko errepikatze-denborakoa izango da. Horrez gain, 180 metroko luzera duen lezoi edo lubeta txiki bat egin beharko da ibaian gora egindako ubidearen eskuinaldean.

Ubideak egiteko beharrezkoak diren lur-mugimenduei dagokienez, ezkerreko ubidea egiteko lur-indusketen bolumena 9.025 m<sup>3</sup>-koa da. Eskuinaldeko ubidean, indusketa (lehendik dagoen betelana eta ubidea) 11.857 m<sup>3</sup>-koa da. Era berean, eskuinaldeko ubidea egiteko, 81 m<sup>3</sup> material gehigarri behar dira.

Hala, proiektuaren lur-mugimenduak, denera, 20.963 m<sup>3</sup> dira (20.882 m<sup>3</sup> lur-indusketa eta 81 m<sup>3</sup> lur gehigarri). Ez da aurreikusten indusketa-lurrak balorizatzea, eta, beraz, deuseztatzeko soberakinen bolumena 20.882 m<sup>3</sup>-koa da.

Jarduketa Arratia ibaian eta haren erriberetan egingo da, Igorreko Garakoi auzoan.

Proiektuak zuzenean eragindako eremua ez da Natura 2000 sareko naturagune babestu bat, ezta inbentarioan sartutako bestelako gune babestu edo natura intereseko bat ere.

Hauek dira ingurunearen baldintzatzaile nagusiak:

- Arratia ibaia, jardun beharreko zatian, Arratia ibaia gainazaleko ur-masaren (ES067MAR002790) parte da; Arratia unitate hidrologikoan dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazioko erkidegoarteko arroen eremuan.

Arratia ibaia 100 eta 200 km<sup>2</sup> bitarteko isuri-arroa du aztergai den zatian; beraz, III. mailako tartea da.

- Lurpeko urei dagokienez, eremua Hegoaldeko antiklinorio ur-masaren (ES017MSBT017.006) Balmaseda-Elorrio laugarren mailako sektorean dago, salbu eta jarduketa-eremuaren ipar-ekialdeko muturra, Aramotz ur-masaren (ES017MSBT013.004) Aramotz laugarren mailako sektorean dago eta. Gainera, interes hidrogeologikoko eremu baten barruan dago.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroari dagokionez, Arratia ibaia hornidura-bilketak dituen masatzat hartzen da, bai eta bisoi europarraren interes bereziko eremutzat ere.
- Porositatea dela eta iragazkortasun ertaina duten alubioi-metakinen gainean dago jarduketa-eremua, eta akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna handia da.
- Aztergai den eremua oso eraldatuta dago landarediaren ikuspegitik, baina badaude haltzadi kantauriarra duten zatiak, zeina, ibilguaren ertzetan mugatuta egon arren, ondo kontserbatzen baita. Era berean, aztergai den eremu osoan, nabarmentzekoak dira belardi eta labore atlantikoak eta hirigune edo lugorrietako berezko landaredi erruderal-nitrofiloa, nola ibaietatik gertu hala ibilgutik urrun dauden eremuetan. Hori horrela, Arratia ibaiertzaren zati batzuk, eta, zehazki, jarduketako ertzetako zati batzuk Batasunaren lehentasunezko intereseko habitat gisa identifikatzen dira; hain zuzen, 91E0\* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen alubioi-basoak dira.
- Arratia ibaia bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremu gisa katalogatuta dago, hura kudeatzeko Bizkaiko lurralde historikoko planaren arabera.

- EAEko azpiegitura berdeari dagokionez, Igorre udalerrian bilbe urdineko elementu bat dago: Arratia ibaia.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, ibaiaren ezker aldeko ubidea egitea aurreikusten den eremuaren parte bat balio estrategiko altukotzat hartzen da.
- Proiektuak 48094-00047 lurzatiari eragiten dio. Jatorri industrialekoa da eta lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen EAEko inbentarioan dago.

GEOIKER 48094-00047 Ebay SA kodeko lurzattia —osagai elektronikoen fabrikazioan diharduena (CNAE-2009 26.11)— abian den proiektuaren lurretan dagoenez, URAk zegokion kontsulta egin zion Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari. Erantzunak zioenez, alderdi horretan garatu nahi den edozein proiektuaren aurrean, lurzoruen kalitateari buruzko ikerketa bat egin behar da, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak —lurzoria ez kutsatzeko edo kutsatutakoa garbitzeko— ezartzen duen moduan, baldin eta lege horren 23. artikuluan zehazten diren inguruabarretakoren bat gertatzen bada. Azterketaren amaieran, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak lurzoruen kalitateari buruzko adierazpen-ebazpena emango du.

- «Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa (2005)» aurreproiektuaren arabera, proiektuaren kokagunea 264. Igorre arroan sartzen da, zeinaren paisaia-balorazioa «Oso baxua» baita. Arroa «Arrunta» gisa definitzen da eta ez dago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan jasota. Hautatutako kokalekuan ez dago ezer apartekorik paisaia aldetik. Hala, aztertutako inguruneko paisaia «Nekazaritza-girokoa, ibai-eremuan belardiak eta labore atlantikoak dituen» gisa definitutako paisaia-unitate baten barruan dago. Bestalde, «Igorreko Eremu Funtzionalaren LPPko Paisaiaren Katalogoa eta Zehaztapenak» agiriaren arabera —zeina Igorreko Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren aldaketa, paisaiaren zehaztapenei dagokiena, behin betiko onesten duen urtarilaren 31ko 17/2023 Dekretuaren bidez onartutakoa baita—, erreferentzia-eremua «UP3.1 Arratia ibaia» eremuaren barruan dago. Katalogoaren barruan, aztertzen ari garen ingurunea «Uraren Paisaiak» kategoriari lotutako paisaia-interes bereziko eremuan sartzen da. Aldi berean, ibaiertzaren kontserbazio-egoeraren arabera azpibanatzen ditu paisaia horiek. Hala, «Ondo kontserbatutako ibaiertzak» atalean sailkatzen ditu Garakoiko meandrotik N-240 errepideko zubia pasatu arte dauden ertzak, eta «Narriatutako ibaiertzak» atalean puntu horretatik Urkizurainokoak.
- Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren (Ondarea) eta Udal Katalogoaren arabera, proiektuaren esku-hartze eremuan ez dago katalogatutako elementurik. Ibaian beheara, ordea, 12. fitxa duen elementua dago, URKIZUKO BURDINOLA-ERROTA izenekoak. Presa, burdinola eta errota ez daude Kultur Ondasun Kalifikatuen Erregistroan sartuta, ez eta Euskal Ondare Kulturalaren Inbentario Orokorrean inskribatuta ere. Hala ere, multzoak babes-proposamena du zentroaren behin-behineko inbentarioan «Gune arkeologiko» gisa, intereseko elementu arkeologikoak daudelako. Proiektuaren ingurumen-dokumentuaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari egindako kontsultarekin bat etorritik, sail horrek zehaztu du elementua ez dagoela Euskal Ondare Kulturalaren Inbentario Orokorrean sartuta. Era berean, Igorreko HAPOaren Hasierako Onarpenaren Dokumentuan jasotzen denez, Urkizuko Burdinola-Errotaren azpiegitura hidraulikoa haren Katalogoan jasota dago, «Oinarriko Babeseko» kategorian. Haren araudian ezartzen denez, dagoen eremuko sailkapen globalean baimenduta dauden erabilerak ahalbidetzen dira, betiere azpiegituraren kontserbazioa eta mantentzea bermatzen badira; era berean, baimentzen dira haren kontserbazioarekin eta mantentzearekin bateragarriak diren erabilerak, baldin eta, baimenduta dauden esku-hartzeen bidez, haren konfiguraziora egokitzen badira. Elementu hori grafiatuta dago Planean, «Euskal Autonomia Erkidegoak monumentu edo monumentu-multzo izendatzeko proposatutako gune arkeologiko» gisa.

Proiektua garatzetik eratorritako ondorio nagusiak bi jarduketa motarekin lotuta daude: batetik, ibilguaren barruan egingo direnak, hala nola harritzak erauztea eta ibilguaren ohea erregularizatzea, eta, bestetik, ibaiertzei eragingo dietenak, hala nola bi uraldi-ubide egitea eta lubetak eraikitzea.

Jarduketa horietan, honako hauek egin behar dira neurri handiagoan edo txikiagoan: ibilgua eta ibaiertzak induskatu, ibilguaren barruan makinak lekuz aldatu, ibaiertzetan lur-mugimenduak egin eta intereseko

erriberako landaredia kendu; eta baliteke horrek guztiak eragina izatea kaltetutako ur-masen egoera edo potentzial ekologikoa definitzen duten kalitate-elementuetan. Horrez gain, baliteke honako inpaktu hauek ere eragitea: balio estrategiko handiko lurzoruei kalte egitea, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan egindako indusketen ondorioz kutsatzaileak mugitzea, zaratak eta hautsak eragindako eragozpenak, hondakinak sortzea, espezie exotiko inbaditzaileak ugaritzeko arriskua, etab.

Proiektuaren xedea positiboki baloratu da, eta hura gauzatu ondoren murriztu egingo da eremuak uholdeei aurre egiteko duen arriskua.

## **2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabaltasuna, xehetasuna eta zehaztasuna:**

Ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokienez, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituztenak.

Aurrekoari jarraituz, apartatuek eskema metodologiko honi jarraitu behar diote:

1. Proiektuaren deskribapen orokorra eta lurzoruak eta beste natura-baliabide batzuek etorkizunean izango duten erabileraren aurreikuspena. Materiaren edo energiaren isuri, emisio eta hondakin motak eta kopuruak zenbatzea.
2. Aztertutako alternatiba nagusiak azaltzea, 0. alternatiba barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusiak justifikatzea, proiektuak eragindako ingurumen-ondorioak kontuan hartuta.
3. Ingurumen-inbentarioa egitea eta interakzio ekologiko edo ingurumen-interakzio garrantzitsuenak deskribatzea.
4. Inpaktua identifikatzea, kuantifikatzea eta neurtzea: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoruan, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialean (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua gauzatu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan.

Proiektuaren ondorioz gainazaleko ur-masa batean aldaketa hidromorfologikoa edo lurpeko ur-masa baten maila-aldaketa gertatzen bada epe luzera, eta horrek haren egoera edo ahalmena ona izatea eragozteko edo hondatzeko arriskua badakar, apartatu espezifiko bat gehituko da, eragindako ur-masen egoera edo ahalmena definitzen duten kalitate-elementuetan epe luzera izango dituen ondorioak ebaluatzeko.

5. Proiektuaren kalteberatasuna. Istripu larri edo hondamendi handiren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen kalte nabarmenen deskribapena, aztergai dagoen proiektuari dagokiona.
6. Ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak.
7. Ingurumena zaintzeko programa.
8. Azterketaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Azterketa egitean izandako zailtasun informatibo edo teknikoaren txostena, zailtasunik izan bada.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zehazten dira ingurumen-inpaktuaren azterketa egiteko baldintzak.

Proposatzen diren jarduketan eta ziurrenik kalteak jasango dituen ingurunearen ezaugarriak direla eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako atalak garatu beharko ditu, ondoren adierazitako zabaltasunarekin eta xehetasun-mailarekin.

## 2.1. Proiektuaren eta proiektuko ekintzen deskribapena

Ingurumen-inpaktuaren azterketak barne hartu behar du esku-hartzearekin lotuta dagoen jarduera multzoaren deskribapen xehea, eta kontuan hartu okupatu edo aldatuko diren eremu guztiak; bereziki, inguruneke ingurumen-baldintzei nabarmen eragin diezaieketen ekintzak identifikatu behar ditu, zehatz aztertuta instalazioa egiteko fasea eta obraren funtzionamenduko fasea. Halaber, sortuko diren hondakinen, isurien eta materia- eta energia-emisioen motak eta kantitateak zenbatetsi behar ditu.

Saihestu eta zuzendu nahi diren kalteen jatorria izan daitezke bai proiektuak proposatutako jarduera bera, bai berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztiak; bereziki, honako hauek: sarbideak egokitzea, obrarako instalazio osagarriak ezartzea eta erabiltzea, eta materialak eta makinak metatzea.

Jarduketa guztiak xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeak ingurumenean izan litzakeen ondorioak kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, hartara hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murrizten, desagerrarazten edo konpentsatzen direla bermatzeko.

Hala, erabat definituta geratu behar dute gai hauek:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokalekua eta mugaketa. Proiektuko ekintza guztiek hartzen dituzten eremuak, aldi baterako eta behin betiko okupazio-eremuak berezita.
- Egungo egoeraren deskribapena.
- Jarduketan definizioa eta aurreikusitako obraren deskribapena. Proposatutako esku-hartze bakoitzaren eta haien eraginpeko eremuen deskribapen zehatza; oinplano-trazadura, luzetarako eta zeharkako profilak eta proiektatutako lubeten sekzio motak.
- Obra faserako aurreikusitako eraikuntza-teknikak, egungo lur-kordioa kentzea aurreikusi den tarteetan ibaiari kalterik ez eragiteko.
- Lur-mugimenduak: lur-mugimenduak egiteko lanen deskribapena, egiteko modua eta materiala baztertzeko eta bitarteko metatzerako aurreikuspenak.
- Lur-mugimenduen balantzea egitea, eta obra-ingurunetik kanpo kudeatu beharreko indusketa-lanen soberakinak zenbatzea, hala badagokio. Soberakinak garraiatzeko aukeratu diren ibilbideak, lurra biltegitratzeko garraioek sorrarazten dituzten ondorioak aztertuta.

Soberakin berriak biltegitratu beharra aurreikusten bada, kontuan hartu beharko da horretarako proiektuak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak agindutakoaren arabera egin behar direla (49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena), eta, beraz, dekretu horren 26. artikuluan zehazten diren ur- eta biodibertsitate-gaietan eskuduntza aitortzen zaien organoen txosten nahitaezko eta lotesleetatik eratorritako emaitza, baldintza eta neurriak ere bildu behar direla haietan.

- Proiektuaren faseetan sortutako hondakinak eta haien azken helmuga, lur-mugimenduen soberakinak, eraispen-egiturenak eta abar barne. Obretan sor daitezkeen eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan (eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena) eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan (eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena) xedatutakoa beteko da.
- Obrarako instalazio osagarrien kokapena: makineria-parkeak, lurra eta obrarako materialak metatzeko guneak, hormigoi-makinak eta kamioien gurrpilak garbitzeko guneak, bulegoen eta langileen instalazioak eta abar.

- Ibilgurako sarbideen trazadura. Pista berriak edo sarbideak egokitzeko beharrik badagoen zehaztu, eta haien ezaugarriak.
- Aurreikusten den obra-iraunaldia eta obraren plana (haren faseetako bakoitzaren iraunaldia, halakorik balego).

Proiektua behar bezala deskribatzeko beharrezkoak diren xehetasun-planoak aurkeztuko dira, gutxienez honako hauek barne hartuta:

- Kokapen geografikoaren plano georreferentziaduna.
- Egin behar diren jarduketan oinplanoko planoak. Proposatutako jarduketek behar bezala zehaztuta eta bereizita egon behar dute.
- Planoak luzetarako eta zeharkako profilekin, eta proiektuak eragindako zatiko ibilguaren sekzio motak.
- Ibilguko sarbideen trazaduren planoak, egokitu behar diren bide-zatiak identifikatuta.
- Obrako instalazio osagarrien kokapen-planoak.
- Paisaia lehengoratzeko eta integratzeko proposamenen planoak.

## **2.2. Aztertutako aukeren azalpena eta hautatu den aukeraren justifikazioa**

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketan, irizpide anitzeko azterketa bat sartu behar da, proposatutako proiekturako teknikoki bideragarriak diren alternatibei buruz; ingurumenaren aldetik egokienak eta proiekturako garrantzitsuak diren alternatibei buruz (zero aukera edo jarduketarik ez egitea barne), hain zuzen. Halaber, proposatutako konponbidearen justifikazio bat sartu behar da.

Ezpondak egonkortzeko, bioingeniaritza-teknikak erabiltzeko aukera aztertuko da, bai eta ezpondak naturalizatzen laguntzen duen jalkitze-diseinuak ere.

Aukerarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da, alderdi ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta ingurumen-arloak ere aintzat hartuta.

Alternatibak aztertzeko prozesuan, honako hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: ibilguari eragindako kaltea, landarediaren erasana, lur-mugimenduak eta lortu nahi den hobekuntza hidraulikoa.

Atala bukatzeko, hautatutako alternatiba argudiatu beharko da, eta, horretarako, bermatu beharko da hautatutako aukera bideragarria dela bai teknikoki bai ingurumenari dagokionez, eta ahalegina egingo dela ahalik eta eraginik txikiena izan dezan ingurumenaren osagaietan.

## **2.3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko garrantzitsuenen deskribapena**

Apartatu honetan ingurunea deskribatu beharko da, eta arreta berezia jarriko da elementu baliotsuetan eta proiektuko ekintzek gehien eragin ditzaketan. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duena betez, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txostena ere sartu behar da, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera alderatzeko azterketa bat ere, aztertutako alternatiba bakoitzaren kasuan.

Ingurumen-inbentarioa apartatuz apartatu baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (tokiko mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuen iturri dokumentalak adierazi beharko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da. Saihestu egingo dira ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak, eta kontuan hartuko da proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eraginak ulertzeko behar dena.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Geologia eta geomorfologia
  - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak.
  - Interes geologiko/geomorfologikoa duten leku, gune eta eremuen identifikazioa.
  - Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko guneak, kargatze-eremuak, hustutegiak eta abar identifikatzea, halakorik badago, eta gune horien eta proiektuaren arteko erlazioa.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia
  - Sare hidrografikoa proiektuaren eragin-eremuan. Proiektuak eragindako ibilguen eta haien ertzen egoera.
  - Akuiferoak eta interes hidrogeologikoko guneak kutsatzeko kalteberatasuna
  - Uren kalitatea. Proiektuak eragindako zatien egoera ekologikoaren zehaztapena (biologikoa, fisiko-kimikoa eta hidromorfologikoa).
  - Eremuan dauden ur-puntuak. Horien ezaugarrien deskribapena, erabilera adierazita, eta xehetasun-kartografian kokatuz.
- Eremu horretan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena
  - Apartatu honetan, ukitutako komunitateak identifikatu, eta honako hauek adieraziko dira: kontserbazio-maila; egiturazko konplexutasuna; espezie bereizgarri, enblematiko edo adierazgarriak, etab. Kontuan hartuko da, bereziki, ea espezie mehatxaturik dagoen eskualde, Espainia, Europa eta nazioarte mailan.
  - Ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasunez zehaztuko ditu, azterketa zehatz baten bidez, proiektuaren jarduketek eragindako intereseko habitat bakoitzaren eta landare autoktonoen masen azalera, haien osaera, kontserbazio-egoera eta balio ekologikoa. Bereziki, proiektuaren kalteak jasan ditzakeen ibaiertzeko basoaren azalerrari eta kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira.
  - Botanikako aditu batek proiektuaren eragin-eremuari buruzko prospekzio zehatzak egin beharko ditu, eta haren eginkizuna izango da proiektuaren eragin-eremuan dauden mehatxatutako flora-populazioak edo -aleak non dauden identifikatzea eta xehetasunezko kartografian seinaleztatzea.
  - Halaber, landarediaren azterketak jasoko du zein balizko landare-espezie aloktono inbaditzaile dauden eta zehazki non dauden.
  - Bertako faunari dagokionez, ingurumen-inpaktuaren azterketak, funtsean, xede izan behar du proiektuaren eragin-eremuan dauden edo egon daitezkeen fauna espezieen habitatak zaintzea eta lehengoratzea. Baloratu beharko du eremuan interesekoa den edo mehatxatuta dagoen faunarako intereseko eremurik badagoen (hazkuntza-eremuak, babeslekuak eta elikaduraguneak). Alde horretatik, faunaren diagnostikoa osatzeko, fauna-talde guztiak barne hartzen dituzten prospekzioak egin beharko dira, proiektuaren eremuan dauden espezieei buruzko informazio zehatza lortzeko, bai eta haiek espazioa erabiltzen duten moduari buruzkoa ere. Kontuan izan beharko da Arratia ibaia bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) interes bereziko

eremu gisa katalogatuta dagoela, hura kudeatzeko Bizkaiko lurralde historikoko planaren arabera.

- Ingurumen-inpaktuaren azterketan, proiektuak lurraldeko konektagarritasun ekologikoan duen eragina baloratu beharko da.
- Paisaia
  - Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da.
- Kultura-ondarea
  - Proiektuaren eragin-eremuan dauden kultura-interesekotzat deklaraturako elementuetarako, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aurreikusitakoari jarraituko zaio.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua:
  - Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan dauden lurzatiak identifikatu beharko dira, eta haien kudeaketan ekainaren 25eko 4/2015 Legean — Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa— xedatutakoa bete beharko da.
- Dokumentazio grafikoa
  - Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografiko georreferentziadunak txertatu beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko dute.

#### **2.4.- Inpaktuak identifikatzea eta baloratzea**

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioko elementuen eta eraginak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio izango dira. Kaltearen garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka eragingo dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Obra faseko, funtzionamendu faseko eta eraispen faseko inpaktuak bereiziko dira.

Inpaktuak baloratzeko, proiektutik eratorritako jarduketa guztiak hartuko dira kontuan, hala nola, eta hala badagokio, soberako materialak soberakin-biltegiara eramateko trafikoa, sarbide iraunkorrak eta aldi baterakoak, instalazio osagarriak, lurren eta materialen aldi baterako metaketak eta abar.

Ingurumen-inpaktuak zenbatesteko erabilitako metodologiak eta balioeste-metodoak zehaztuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartuta dauden arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu honetan, funtsean, egungo egoera eta etorkizuneko konparatuko dira, zuzenketa-neurriak kontuan hartuta.

Zehazki, bestelakoak eragotzi gabe, proiektuaren eta eraginpeko eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketak bereziki azpimarratu beharko ditu Arratia ibaiaren afekzioarekin lotutako ingurumen-inpaktuen balorazioa eta natura-baliabideei eragindako ondorioak —landaredi natural autoktonoaren eta faunaren gaineko kalte posibleak kontuan hartuta—. Proiektuaren eraginpean dagoen landaredi mota bakoitzaren azalera kuantifikatuko da.

Obra fasean, bereizi egingo dira aldi baterako okupazioa eta iraunkorra. Batasunaren intereseko landarediaren eta habitaten gaineko inpaktua baloratzeko, eragindako azalera ez ezik, kontuan hartuko dira haien kontserbazio-egoera, adierazgarritasun-maila eta konektagarritasunean betetzen duten lekua ere.

Gainera, baloratuko dira kutsadura akustikoak eta hondakinen, isurketen eta emisioen kudeaketa egokiak obra-fasean eragin ditzaketen inpaktuak.

Ildo horretan, zaratari dagokionez, obren eragin akustikoaren balorazioa jasoko da. Horretarako, kontuan hartu beharko dira azaroaren 17ko Zaratari buruzko 37/2003 Legean zein urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, EAEn hots-kutsadurari buruzkoan, obretako zaratari buruzko xedapen espezifikoa. Aintzat hartu beharko dira obrako makineriaren potentzia akustikoa, zonakatzeko akustikoa eta guneko bakoitzean kalitate akustikoari dagokionez ezarritako helburuak.

Bestalde, balorazio bat egin beharko da kutsatuta egon litezkeen jarduera-esparruko lurzoruen gaineko eraginari buruz.

Baliabide estetiko-kulturaleri dagokionez, baloratuko da ea proposamena bateragarria den kultura-ondareko elementuekin.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak behar bezala baloratu behar dituen beste inpaktu batzuk dira, hain zuzen, obra fasean hurbil dauden habiak egiteko guneetan edo hegaztien umatzeko beste eremu batzuetan eragozpenak sortzearen ondoriozkoak, alderdi hori bereziki garrantzitsua baita arriskuan den fauna-espezie ororentzat.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak klima-aldaketa barne hartu behar du proiektuaren balizko eragin garrantzitsuak identifikatzeko, deskribatzeko, analizatzeko eta kuantifikatzeko.

### ***2.5. Proiektuaren kalteberatasuna***

Istripu larri edo hondamendi adierazgarriren bat gertatzeko arriskuarekiko kaltebera izatearen ondorioz proiektuak ingurumenean sor ditzakeen kalte adierazgarrien deskribapena, azterketa eta, hala badagokio, kuantifikazioa egingo da, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskuarena ere. Helburu hori lortze aldera, erabili ahal izango da proiektuari aplikatu beharreko beste arau batzuei jarraituz egindako arrisku-ebaluazioen bitartez lortutako informazio esanguratsua.

Horrelako ezbeharrek ingurumenean sortzen dituzten kalte adierazgarriak prebenitzeko eta arintzeko aurreikusitako neurri guztiak bildu behar dira deskribapenean, baita halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

### ***2.6. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien proposamena***

Ingurumen-inpaktuaren azterketan adierazi beharko da zer neurri aurreikusten diren aztertutako inguruneko elementu bakoitzak izango dituen ingurumen-ondorio negatibo nabarmenak murrizteko, desagerrarazteko edo konpentsatzeko.

Babes- eta zuzenketa-neurriak eta, beharrezkoa bada, konpentsazio-neurriak diseinatzeko, proiektua gauzatzeko behar diren elementu eta jarduketak guztiak hartu behar dira kontuan, eta bat etorri behar dute inpaktuekin; zehazki, proiektuak hartzen duen espazioko ingurumen-elementu eta balioen gaineko ekintzek eragindakoekin.

Zehatz-mehatz identifikatu eta deskribatuko dira inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko ekintza bakoitza. Deskribapenak xehetasun-maila nahikoa izan beharko du hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murrizten, desagerrarazten edo konpentsatzen direla bermatzeko, egikaritze-proiektuek izan ohi dituzten apartatuak barne hartuta: memoria, neurketen koadroa, obra-unitateen definizioa, aurreikusitako neurri bakoitzari dagokion aurrekontuko partida eta preskripzio teknikoaren agiria, baita hori

guztia hobeto ulertzeko behar den kartografia ere. Neurriak obraren planean txertatuko dira, eta neurriak gauzatzeko egutegi koordinatu bat proposatuko da.

Zehazki, eta ezertan galarazi gabe aurreko apartatuetan eskatutako analisisien emaitzen ondorioz sartu beharko liratekeen beste neurri batzuk, prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurrien proiektuak neurri hauek hartu eta garatuko ditu, besteak beste:

#### Natura-ondarea babesteko neurriak

- Proiektuaren diseinuarekin (lan-eremuak mugatzea, etab.) eta obraren exekuzioarekin lotutako prebentzio-neurriak, hala nola obraren eraginpeko eremua balizatzea, sarbide osagarriak, pilaketak eta abar barne, obra ez dadin balizatutako lurraldetik harago joan.
- Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen intereseko lekuak babestea.
- Obrak faunarentzako ugalketa-aldi kritikotik kanpo egitea, espezie mehatxatuak detektatu diren eremuetan.
- Landaredia autoktonoa babesteko neurriak.
- Kendu beharreko zuhaitzak seinalezatzeko aurreikuspena, ezinbesteko gutxienezkoa izan dadin.
- Landaredi aloktono inbaditzailea desagerrarazteko neurriak.
- Prebentzio-neurriak (diseinukoak eta obraren kontuan hartzekoak) eta zuzenketa-neurriak, intereseko fauna-espezieei kalte ez egiteko. Biso europarrari dagokionez, obraren egutegia doitu (prebentzio-neurria) eta ibaiertzak lehengoratu (zuzenketa-neurria) beharko dira. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiak, espezieen kudeaketaz eta biso europarraren kudeaketa-plana aplikatzeaz arduratzen den organoa den aldetik, beharrezkotzat jotzen dituen neurri guztiak ezarri ahal izango ditu.

#### Sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak

- Jarduketa egingo den zatian uren kutsadura minimizatzeko neurriak, hala nola solido esekien ekarpenak eta makineria-parkeen eta instalazio osagarrien gunetatik datozen beste kutsatzaile batzuen isuriak ekiditekoak.
- Metatze-guneak eta eremu osagarriak egoki kokatzea, zuzeneko nahiz jario bidezko kaltea ekiditeko.
- Makina-parkeak eta instalazio osagarriak egokitzeko neurriak (iragazgaiztea, drainatze-sarea, etab.).
- Obra-eremuetan, eta batez ere indusketa-lanetako materialekin kargatutako kamioiek ibili behar dutela aurreikusten den irteeretan, ibilgailuak garbitzeko instalazioak ipini beharko dira dekantazio-putzuetara konektatuta. Azterketak azaldu beharko ditu elementu horien ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurrien justifikazioa.

#### Ingurumena leheneratzeko eta paisaia txertatzeko neurriak

Leheneratze-proiektu espezifiko bat idatziko da, ibaiaren ertzak gehiago naturalizatzen eta ekologikoki funtzionalagoak bilakatzen lagunduko duena. Haren helburua izango da obraren eraginpeko eremu guztiak leheneratzeko neurriak ezartzea; halaber, fauna-habitata leheneratzen lagunduko duten ekintzak planteatuko ditu. Gutxienez, honako gai hauek zehaztuko dira:

- Jarduketa-eremuen zehaztapena. Leheneratzeko ahalmen berdina duten unitate homogeneoak deskribatuko dira. Landareztatu beharreko eremuak adierazten dituen plano bat erantsiko da.
- Zehaztutako eremu bakoitza leheneratzeko jarduketak. Besteak beste, landareztatze erabili beharreko espezieak deskribatuko dira, bai eta landaketa-dentsitateak, aleen tamaina eta eriteen edo hidroeriteen osaera ere. Hala badagokio, flora aloktonoaren

inbasio-prozesuak saihesteko neurriak barne hartuko dira, kontuan hartuz lur-mugimenduek landare mota horien zabalkundea erraztu dezaketela.

- Aurreikusitako mantentze-lanak: hutsarteak berritzea, ureztatzeak, eta, hala badagokio, ongarriketak, besteak beste. Gomendatzen da mantentze-lan horiek obrak egin eta gutxienez 3 urtez luzatzea.
- Neurketak egitea (azalera) eta proposatutako jarduketak gauzatzeko eta landareztatutako eremuen mantentze-lanak bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-partidak bideratzea.

Leheneratze-proiektua maila guztietan lotuko zaio uholdeetatik babesteko proiektuari, aurrekontu-maila barne.

#### Herritarrei kalte eta eragozpen gutxiago eragiteko neurriak

- Atmosferaren kalitatea babesteko neurrien proposamena, obra fasean sortutako hautsarekin eta zaratarekin lotutakoak barne.
- Funtzionamendu-aldian zarata-mailak minimizatzeraz bideratutako neurrien proposamena.
- Obrak egin bitartean istripu larriak gertatzen direnean eta bertako biztanleei eragiten dienean jarduteko protokoloak.

#### Hondakinak kudeatzeko neurriak

- Obra fasean zehar hondakinak kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.

#### Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kudeaketarekin lotutako neurriak

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen dituen lurzati bati eragitearen ondorioz hartutako neurriak definitu beharko dira.

#### Kultura-ondarea babesteko neurriak

- Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketak inguruko kultura-ondareko elementuen babesa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztu beharko ditu.

### **2.7. Ingurumena zaintzeko programa**

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia izango da ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak zein bertan adierazitako jarraibideak eta zuzenketa-neurriak beteko direla bermatzeko sistema bat ezartzea.

Programaren helburuak zehaztuko dira eta, helburu bakoitzaren kasuan, jaso beharreko datuak, erabili beharreko metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki non dauden jakiteko planoko kokapena eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna ere adieraziko dira.

Kalitate-helburuak legediak edo oro har onartuta dauden azterketa teknikoek zehazten dituzten mugabalioren edo gida-balioren arabera izango dira. Hala ere, proiektuaren eraginpeko eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak ezarri beharko dira beharrezkoak irizten zaien parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eragin jarraipen egokia egiteko. Proiektuari eta proiektuak ingurunean duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolez gain, jarraian adieraziko diren kontrolak izan beharko ditu programak:

- Obrak okupatzen dituen mugak kontrolatzea.
- Obrek irautean duten bitartean ur-ibilguren eta uren kalitatearen gaineko kalteen kontrola.
- Landarediaren gaineko eraginaren kontrola.
- Mehatxatutako fauna-espezieen gaineko kalteen kontrola.
- Obrako jardunbide egokien kontrola, hauek saihesteko: hondakin-isurketak, olio-jarioen, zementu-esneen eta lur-mugimenduen ondorioz lurzorua edo ura kutsatzea, eta biztanleei zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz eragozpenak sortzea.
- Lur-mugimenduen eta indusketa-materialen kudeaketaren kontrola.
- Sortutako hondakinen kudeaketaren kontrola.
- Leheneratze-lanen kontrola.
- Aurreikusitako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeko beste kontrol batzuk.

Kontrol-puntuak kartografikoki islatu beharko dira.

### **2.8. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena**

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak VI. eranskinean ezarritako ezaugarriekin. Dokumentuan labor-labor eta edonork ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak ekiditeko edo minimizatzeke proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea gomendatzen da, jendea informatzeko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean aurkitutako zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

### **3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak**

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organoiari bidaliko dio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak egindako oharren dokumentu bat, jasotako alegazio eta txostenetako ingurumen-edukiari eta kontuan hartzeko moduari dagokionez.

Dokumentazioa formatu digitalean eta xede horretarako egin diren jarraibideak betez aurkeztu behar da. Jarraibideak Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean daude eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ingurumen-ebaluazioa/>), atal honetan: Tramiteak > Ingurumen Ebaluazioa > PROIEKTUen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura izapidetzea > Eskaerak aurkeztea.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu\\_def/adjuntos/2022\\_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA\\_v4.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf)

**Bigarrenena.** – Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentuak lau urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igarotakoan organo substantiboari ez bazaio ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura hasteko.

**Hirugarrena.** – Ebazpen honen edukia Uraren Euskal Agentziari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 17a.

Javier Aguirre Orcajo

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria